

Donostia, 2020ko ekainaren 5a

UDALBATZAREN IDAZKARIARI

UDALBATZAREN ARAUDI ORGANIKOA ALDATZEKO ARAU-PROPOSAMEN BATERAKO EKIMENA

Aitzole Araneta Zinkunegi Elkarrekin Donostia udal taldeko bozeramaileak, Udalbatzaren Araudi Organikoko 90. eta 91. artikulua oinarri, UDALBATZAREN ARAUDI ORGANIKOA ALDATZEKO ARAU-PROPOSAMEN BATERAKO EKIMEN hau aurkezten du.

JUSTIFIKAZIOA

Udal Gobernuak Udalbatzaren Araudi Organikoko 97 eta 98. artikulua aldatzeko aurkeztutako proposamena ikusita, Elkarrekin Donostia taldeak arau-proposamen baterako ekimen hau aurkezten du, Elkartek eta Erakundeek Udalbatzan Parte Hartzea dela eta. Horren helburua da Araudia garai hauetara egokitzea eta parte hartzeko espazioak sortzea, herritarren ahotsari lekua eginez. Izan ere, beste udalerrri batzuetan hasi dira jada beharrezko aldaketak egiten arauetan, elkartek eta bestelako herritar-taldeek berek defenda ditzaten Udalbatzan bultzada politikoaren beren ekimenak.

Horiek horrela, Elkarrekin Donostia taldeak honako hau proposatzen du:

ERABAKIA:

- Bidezkoa jotzea Donostiako Udalbatzaren Araudi Organikoko IV. Kapituluak –HERRITARREN EKIMENA– aldatu, eta Elkarrekin eta Entitateek Udalbatzan Parte Hartzeari buruzko puntu bat eranstea.
- Horren ondorioz, Arau-Proposamen baterako ekimen honi buruzko Aldez Aurreko Jendaurreko Kontsulta bat izapidetuko da, Udalbatzaren Araudi Organikoko 115. artikuluan aurreikusitakoarekin bat.

Izpta.: Aitzole Araneta,

Elkarrekin Donostia Udal Taldeko bozeramailea